ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, ERREZILGO PILOTALEKUAN HARMAILAK ERAIKITZEKO LANAK KONTRATATZEKO

KLAUSULAK

- I. ALDERDI OROKORRAK -

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Kontratuak obra hau egitea du xede: “ERREZILGO PILOTALEKUAN HARMAILAK ERAIKITZEA”, Ganzarain arkitekturak idatzitako eta Errezilgo Udalak 2023ko apirilaren 13an onartutako obra-proiektuarekin adostasunean.

2.- Kontratu honen xedea sorta bakarrean geratu da jasota.

3.- Ez da aldaketarik onartuko.

2.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOAK ETA KONTRATU-IZAERAKO AGIRIAK.

1.- Kontratazioa azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159. artikuluak, Sektore Publikoko Kontratuenak, araututako prozedura ireki sinplifikatuaren bidez egingo da.

2.- Edonola ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 13. artikuluak, Sektore Publikoko Kontratuenak, xedatutakoaren arabera, obretako administrazio-kontratu bat da, eta herri-administrazioen kontratazioko printzipio komunak eta, edonola ere, Europar Batasuneko Zuzenbidearen kontratazio publikoko arauak bete beharko dira.

Aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera, kontratua arau hauen pean egongo da:

1.- Administrazio-klausula partikularren agiria; baldintza tekniko partikularren agiria; planoak; proiektuko memoria eta aurrekontu-programaren artxiboa (obrako partiden deskribapena idatzitako testuari nagusituko zaio); kontratazio-organoak onartutako laneko programa; prezioen taulak; esleipendunak lizitazioan aurkeztutako eskaintza eta kontratu-agiria.

2 - Lege- eta erregelamendu-xedapenen kontratazio-arauak, Toki Araubidearenak eta Herri Administrazioen Kontratu Legearenak,

lizitazioaren eta kontratuaren gauzatze eta garapenean indarrekoak betiere.

Bereziki, 7/1.985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, apirilaren 18ko 781/1.986 Legegintzako Errege Dekretua, toki-araubidean indarreko xedapenen testu bategina onartzen duena, eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko kontratuena (aurrerantzean, SPKL) nagusituko dira, eta erregelamenduzko xedapenak izango dira 773/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa (BOE 213 zk., irailaren 5ekoa), 817/2.009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena eta 1.098/2.001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena, aurrekoekin kontraesanean ez badago betiere.

3.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Baldin eta aurreko paragrafoko xedapenak nahikoak ez badira kontratuaren interpretazio, ondore, betearazpen eta iraungipenari buruzko auziak ebazteko, Zuzenbide Pribatuko arauak beteko dira eta, nolanahi ere, Administrazioaren eskumenak hartu beharko dira aintzat.

3.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, agiri honetako xedapen guztiak espedienteari atxikitako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

3.- EGIKARITZE-EPEA

Agiri honetan jasotakoaren arabera, obrak gauzatzeko epea lau hilekoa izango da, zuinketa egiaztatzen denetik.

4. AURREKONTUA – LIZITAZIO-MOTA

Lizitazio-mota honetarako oinarrizko aurrekontua 85.971,11 eurokoa (BEZ barne) da.

Kontratuaren balio zenbatetsia: 71.050,50 euro, BEZ barne.

Kontratuaren prezioa esleipenaren hainbestekoa izango da, eta ezingo du inolaz ere lizitazioaren gehieneko aurrekontua gainditu. Lizitatzaileek beheranzko eskaintzak egin behar dituzte, eta ezingo dute lehen aipatutako aurrekontua gainditu; osterantzean, lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Lizitatzaileen proposamenetan kontrataren prezioak ez ezik kontzeptu desberdinak zergapetzen dituzten tributuen kuotak ere jasota daudela iritziko

zaio, helburu guztietarako. Edonola ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga xehatu egin behar da eskaintzetan, kontratuaren araudi erregulatzailearen arabera dagozkion tasa eta zenbatekoa barne.

5.- FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa aurrekontuaren kargura ordainduko da, aurrekontu-partida honetan: 1 0000.622.342.00.01

6.- ORDAINBIDEA

Kontratuaren prezioa obra-zuzendariak gauzatutako obren ziurtagiriak igorritakoan ordainduko da. Aurretik, enpresa esleipendunak faktura aurkeztu eta indarreko xedapenek ezarritako izapideak bete beharko ditu.

25/2013 Legeak, abenduaren 27ak, jasotakoa betez, Errezilgo Udalera bidali beharko dituzte faktura elektronikoak horretara behartuta dauden erakundeek.

7.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1.- Aurreko klausulan zehazten da prezioa jasotzeko eskubidea.

2.- Kontratistak betebehar bereziak ditu, agiri honetan eta arau osagarrietan jasotakoez gainera:

a) Kontratistak aginduen liburua gorde eta obran edukiko du denbora guztian, obra-zuzendaritzaren eskura. Liburu horretan idatziko dira obra gauzatzerakoan izandako bisitak, intzidentziak eta aginduak. Kontratistak instrukzioaren hartu-agiria sinatu beharko du.

b) Obraren harreran, liburuaren kopia emango zaio Administrazioari. Behar bezala beteta egon beharko du.

c) Kontratistak obra gauzatzeaz gainera mantendu egin beharko du haren harrerara arte, eta kontratuaren iraunaldian antzemandako obra-akatsen gaineko erantzukizun zibila eta fiskala izango ditu, baita hirugarrenen aurrean ere.

d) 1 urteko berme-epea dago obren harrera egiten denetik.

e) Halaber, esleipendunak lurrak eta haietan dauden ondareak zaindu beharko ditu obrak hartzen diren arte.

f) Aipatutako epean behin betiko bermea eta, hala badagokio, berme osagarria eratzea.

g) Kontratua formalizatzea esleipenean zehaztutako epean.

h) Kontratuaren iraunaldian herri-administrazioekin kontratatzeko gaitasuna bermatzea, eta hamabost eguneko epean bat-batean gertatutako ezintasunen eta bateraezintasunen berri ematea.

i) Lizitazioak eta kontratuak sortutako gastuak ordaintzea (prentsako iragarkiak, etab.), fidantzak eratzea eta, hala badagokio, kontratuaren eskritura publikoa eta kopiak egitea.

j) Laneko Legeria, Gizarte Segurantza, Talde Hitzarmenak eta 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa eta haren garapeneko Errege Dekretuak (langileentzako prestakuntza-jarduerei eta babes-ekipamendu indibidualei lotutakoak bereziki) eta zerga-xedapenak betetzea. Udal-korporazioa eta obra-zuzendaritza erantzukizun guztietatik libre geratuko dira baldin eta xedapen horiek betetzen ez badira.

k) Lanak gauzatzean antzemandako obra-akatsak konpontzea, berme-epea amaitzen ez den bitartean.

8.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK

1.- Udalari dagokio langile teknikoen bitartez kontratua ikuskatzea, kontratistari kontratuaren betearazpenerako jarraibideak eman diezazkioten, kontratuko klausuletan oinarrituz eta alkateak dituen goragoko mailako zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenak oztopatu gabe.

2.- Administrazioak seigarren klausulan jasotako kopuruak ordaindu beharko ditu.

9. BERMEAK

1.- Behin-behineko bermea

Ez da beharrezkoa.

2.- Behin betiko bermea

SPKLaren 145. artikuluan jasotakoaren arabera, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermetzat esleipen-prezioaren % 5 (BEZ kanpo) jarri beharko du udaleko kutxan.

Horretarako, 7 egun balioduneko epea emango zaio, komunikazioa bidaltzen denetik.

Esleipendunak berme hori itzultzeko eska dezake kontratua gauzatu eta agiri honetan edo, hala badagokio, esleipendunaren eskaintzan ezarritako berme-epea amaitutakoan.

3.- Bermeak SPKLaren 108. artikuluak onartutako eran (eskudirua, Zor Publikoko balioak, abala edo kauzio-asegurua) eta indarreko legeriak jasotako baldintzetan eratu ahal izango dira.

10.- LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazioa Euskadiko Kontratazio Plataforman ostatatuta dagoen Errezilgo Udaleko kontratatzailearen profilean (www.errezil.eus) argitaratuko da.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

11.- ESLEIPEN-PROZEDURA

SPKLaren 159. artikuluan jasotakoarekin adostasunean, kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleituko da, eta lege horretan aurreikusitako jarduera eta garapen-arauen bidez izapidetuko da.

12.- LIZITATZAILEEN ERREGISTRO OFIZIALA

SPKLarekin adostasunean, kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleitzeko lizitazioan parte hartzen duten lizitatzaileek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan izena emanda egon beharko dira, eskaintzak aurkezteko epemugan, betiere lehia mugatua ez bada.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan inskribatutako lizitatzaileek, kontrako ebidentziarik ezean, ez dute kontratazio-deialdietan enpresariaren nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide-edo enpresa-gaikuntzari, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta sailkapenari buruzko egiaztagiririk aurkeztu beharko, ezta kontratatzeko debekurik ez izatea ere.

Proposamenak aurkeztearekin batera, kontratazio-mahaiak eta -organoak baimena dute Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan eta Europar Batasuneko estatu kide baten operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

13.- PARTE HARTZEKO ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO GAITASUNA

1.- Gaitasun juridikoa eta jardutekoa duten pertsona natural eta juridikoek parte har dezakete lizitazioan, baldin eta dagokion sailkapena edo, hala badagokio, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa izan eta SPKLaren 71. artikuluan zehaztutako kasuetan kontratatzeko debekurik ez badute.

2.- Proposamenak Errezilgo Udalean (Errezilgo gunea 2, posta-kodea: 20737-Errezil) aurkeztuko dira, lanegunetan eta jendaurreko ordutegian, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik **hogei egun naturaleko** epean. Bide elektronikotik ere aurkez daitezke, lehen aipatutako kontratatzailearen profilean (www.errezil.eus).

Beste aukera bat da proposamenak bidaltzeko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 16 39/2015 Legeak bere 1. artikuluan aipatzen diren bitartekoak erabiltzea (posta, faxa, etab.).

Proposamenak postaz bidaltzen badira, enpresariak posta-bulegoan egiaztatu beharko du noiz bidali diren, eta kontratazio-organoari egunean bertan jakinarazi eskaintza fax bidez bidali zaiola. Halaber, idatziz jasota geratuko dira espediente-zenbakia, kontratu-xedearen izenburu osoa eta lizitatzailearen izena.

Udal-idazkariak faxa hartu izana egiaztatzeko izapideak egingo ditu. Ez da proposamenik onartuko baldin eta bi baldintzak betetzen ez badira, ezta kontratazio-organoak lizitazio-iragarkian aipatutako epemugaren ostean jasotzen badu ere. Edonola ere, ez da dokumenturik onartuko baldin eta hurrengo bost egunetan aurkezten ez bada.

Lizitatzaileek proposamen bat baino gehiago aurkez ditzakete. Lizitatzaileak proposamena bere kabuz aurkeztu edo aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan badago, ezingo du beste enpresa-elkarte baten proposamenik izenpetu. Arauak hausten badira, hark sinatutako proposamen guztiak atzera botako dira.

Iritziko zaio proposamena aurkezten duen enpresariak agiri honen klausulak baldintzarik gabe onartzen dituela.

Interesa duenak web-orrian (www.errezil.eus) kontsulta ditzake baldintzen agiriak, proposamenak behar bezala aztertu eta prestatze aldera.

Era berean, administrazio-espedientea aztertu nahi duenak udalera jo dezake, bulego-ordutegian, deialdia argitaratzen denetik eskaintzak aurkezteko epemugara arte.

3.- Lizitatzaileek **BI GUTUN-AZAL ITXIETAN** sartuko dituzte beren proposamenak, izenburu honen pean: ERREZILGO PILOTALEKUAN HARMAILAK ERAIKITZEKO *lanen kontratazioan parte hartzeko proposamena*".

Instantzia orokorrari erantsiko zaizkio, haien sarrera-erregistrorako, eta lakrez itxita eta zigilatuta egon daitezke.

LEHENENGO GUTUN-AZALAK azpititulu hau izango du: **"ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA AUTOMATIKOKI EBALUA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZA".** Agiri hauek bilduko ditu:

1- Proposamena aurkeztu duen pertsonaren NAN zenbakia, bai norberaren izenean bai beste pertsona fisiko edo juridiko baten ordez.

2- Erantzukizunpeko adierazpena, agiri honen I. eranskineko ereduari jarraikiz egindakoa.

* *Kontratazio-organoak edo -mahaiak lizitatzaileei egiaztagiri guztiak edo horietako batzuk aurkezteko eska diezaieke, adierazpenaren iraupenaren edo fidagarritasunaren gainean arrazoizko zalantzak daudela baderitzo, edo prozeduraren garapen onerako beharrezkoa denean. Nolanahi ere, kontratua esleitu aurretik egin beharko da.*

3.- Aldi Baterako Enpresa Elkarteak.

Enpresa batek baino gehiagok aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen badute, enpresa bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, agiriari atxikitako I. ereduari jarraikiz.

Halaber, enpresariek aldi baterako enpresa-elkartea sortzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, SPKLaren 69. artikuluaren 3. atalean jasotakoarekin adostasunean. Aldi baterako enpresa-elkartea kontratua iraungitzen ez den bitartean behintzat mantendu behar da.

Aldi baterako enpresa-elkartea sortzeko idatzian jasota geratuko dira kideen izenak eta zirkunstantziak, kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendunak izaten badira aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa. Elkarteko enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute agiria.

4.- Zifrekin edo ehunekoekin balioztatu ezinezko irizpideei buruzko dokumentazioa.

Agiriaren 14. klausulan jasotakoa betez, balio-iritziaren mende dagoen dokumentazioa (alderdi horiek egiaztatuko dira zehazki) eta irizpide horiek balioztatzeko nahitaezkoak diren dokumentuak geratuko dira jasota. Horretarako, puntuagarriak diren alderdi guztiekin MEMORIA TEKNIKOA aurkeztuko da.

Adibidez, memorian aintzat hartu beharko dira alderdi hauek.

Eraikuntza-prozesuaren deskribapena; pilotalekuko sarbideak eta obraren inguruak garbitzea eta mantentzea; lanak gauzatu bitartean seinaleak jartzea; obra egikaritzeko egutegia; obra-proiekturako materialen kalitatea hobetzeko eta harmailetan xehetasun gehiago jartzeko proposatzea.

BIGARREN GUTUN-AZALAK azpititulu hau edukiko du: "ESKAINTZA – IRIZPIDE AUTOMATIKOAK". Agiri hauek bilduko ditu:

1.- Agiri honen amaieran jasotako proposamen-eredua (baldintza-agiriaren II. eranskina), behar bezala beteta.

2.- Berme-epea zabaltzea.

Kontratazio-mahaiak ebazpen arrazoitu bidez atzera bota dezake proposamen bat baldin eta aztertua eta onartua izan den dokumentazioarekin bat ez badator, lizitazioaren gehieneko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu edo lizitatzaileak akats edo funtsik ezagatik bideraezina dela baderitzo. Ereduaren hitz batzuk aldatzea edo kentzea ez da izango proposamena atzera botatzeko arrazoi nahikoa, esanahia aldatzen ez badio betiere.

Gutun-azaletako dokumentazioari buruzko oharrak:

** Proposamen ekonomikoa ez da onartuko baldin eta eskatutako ereduari jarraikiz idatzita ez badago edo kontratazio-mahaiaren ustez eskaintzan balioetsi beharreko aspektuak argi eta garbi ezagutzea galarazten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak baditu.*

*** Xehakatutako prezioetan antzematen diren akats aritmetikoak zuzentzeko, oinarrizko prezioa eta dagokion BEZa hartuko dira aintzat, eta ofizioz kalkulatuko da guztizko prezioa.*

**** Kontratuaren esleipena jakinarazi eta epemugan helegiterik aurkeztu ez bada, interesa dutenek proposamenei erantsitako dokumentazioa eskura dezakete. Esleipenaren berri ematen denetik hiru hileko epean dokumentazioa jaso ez badute, Administrazioak ez ditu zertan gorde beharko.*

14.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honela eratuko da:

Lehendakaria: alkatea edo haren ordezkoa.
Kideak: Errezilgo Udaleko idazkaria eta 3 zinegotzi.
Idazkaria: Errezilgo Udaleko administraria.

15.- PROPOSAMENAK ZABALTZEA

1.- Gutun-azalak SPKLaren 145. artikuluan ezarritako ordenari jarraikiz zabalduko dira, agirietan datozen esleipen-irizpideak balioztatzeko metodoa erabiliz. Kontratazio-mahaiak zabalduko ditu gutun-azalak.

2.- Kontratazio-mahaiak balio-iritziaren mende dauden esleipen-irizpideen eskaintza eta adierazpena jasotzen dituen gutun-azala zabalduko du, jendaurrekoa izango ez den ekitaldian. Balio-iritzi bidez balioztatzeko irizpideen gutun-azalean dagoen dokumentazioa kontratazio-organoaren zerbitzu teknikoei bidaliko zaie, 7 egun balioduneko epean txostena egin dezaten (SPKLaren 159.4, e) artikulua).

Txostena bidalitakoan, mahaiak lizitatzaileek aurkeztutako adierazpena kalifikatuko du.

3.- Kontratazio-organoak irizpide automatikoen eskaintza jendaurrean zabaltzeko data kontratatzailearen profilean (www.errezil.eus) argitaratuko du, nahikoa aurrerapenarekin. Ekitaldia balio-iritziaren mende dauden irizpideak kalifikatu eta gero egingo da.

Ekitaldi publiko horretan, mahaiak onartutako eta baztertutako proposamenen berri emango du, eta baztertzeko arrazoiak azaldu. Halaber, balio-iritziaren mende dauden irizpideen balioespena ezagutaraziko da, eta azkenik, irizpide automatikoak irakurriko dira.

Jendaurreko ekitaldia amaitutakoan, kontratazio-mahaiak agirian datozen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu, hala badagokio, eta eskaintzak balioztatu eta sailkatuko ditu.

4.- Eskaintza batzuk ustezko anormaltasun-egoeran badaude, mahaiak SPKLaren 149. artikuluak ezarritako prozedurari jarraituko dio. Alabaina, lizitatzaileak 3 egun balioduneko epea izango du gehienez, jakinarazpena bidaltzen zaionetik, bere eskaintza justifikatzeko.

Horri dagokiola, hasiera batean neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat joko dira lizitaziora aurkeztutako eskaintza ekonomiko guztiek batez beste eskainitako jaitsiera baino % 10 gehiago jaisten diren eskaintzak, ustez eskaintza txikiegiak egiten badira lanak ez direlako behar bezala gauzatuko.

5.- Ondoren, mahaiak kalifikazio onena izan duen hautagaia esleitzea proposatuko dio kontratazio-organoari. Esleipendun izateko proposatzen den lizitatzaileari dagokionez, mahaiak aurrena Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean egiaztatuko du enpresa behar bezala eratuta dagoela, sinatzaileak proposamena egiteko nahikoa ahalorde duela, kaudimen

ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa, edo hala badagokio, sailkapen egokia dauzkala eta ez duela kontratatzeko debekurik.

Halaber, mahaiak esleipenerako beharrezko dokumentazioa eta, hala badagokio, Lizitatzaileen Erregistroan ez datorren beste edozein dokumentazio aurkezteko eska diezaioke puntuazio onena lortu duen enpresari.

16.- KONFIDENTZIALTASUNA

1.- SPKLaren esleipen-publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko xedapenak bazter utzi gabe, hautagaiek eta lizitatzaileek konfidentzialtzat jo dezakete eskaintzak egitean emandako informazioaren zati bat, batik bat sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokionez. Kontratazio-organoek ezingo dute informazio hori baimenik gabe zabaldu.

Era berean, kontratistak kontratua gauzatzean jasotako informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, baldin eta agirietan edo kontratuan informazio konfidentzialtzat agertu edo haren izaeragatik beragatik konfidentzialtasunez tratatu behar bada. Bost urtez mantendu beharko da betebehar hori, informazioa jakinarazten denetik.

2.- Bai kontratazio-prozeduran bai esleipendunarekin sinatu beharreko kontratuan, abenduaren 13ko Legea, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa, eta bere garapen-araudia bete behar dira, SPKLaren hogeita bosgarren xedapen osagarriari jarraikiz.

17.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipena irizpide hauen arabera ebatziko da:

Balio-iritzi baten mende dauden irizpideak:

• Eraikuntza-prozesua: jardueren plangintza eta eraikuntza-prozesuak deskribatuko dira. Puntuazioa: 8 puntu.

• Obra-instalazioak. Bilketa-eremuak: obraren antolakuntzan ibilgailuen zirkulazioa, sortutako zaratak, etab. deskribatuko dira. Puntuazioa: 8 puntu.

• Egikaritze-egutegia. Puntuazioa: 5… puntu.

• Pilotalekuko eta inguruko sarrerak garbitzea eta mantentzea. Puntuazioa: 4 puntu.

Puntuak guztira: 25 puntu.

Formulen bidez automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak:

A) Lizitazioko prezioa jaistea

Puntuak guztira: 60.

Balioztatze-formula:

$$Vi = \frac{Bi}{Max\ (Bs, Bmax)} \times Bmax$$

Izanik:

Vmax: prezioari dagokion gehieneko puntuazioa.

Bs: beherapen esanguratsua, kontratu honetan % 30ekoa.

Vi: eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa edo balioztapena.

Bmax: lizitaziora aurkeztutako beheranzko prezio maximoa.

Bi: eskaintza bakoitzaren beheranzko prezioa (i)

Max (Bs, Bmax): Adierazitako bi balioen arteko balio maximoa irudikatzen du.

B) Berme-epea zabaltzea:

Puntuak guztira: 15.

Agiri honetan jasotzen den berme-epea urtebetekoa da, eta zabaltzen den urte bakoitzeko 3 puntu emango dira.

Kontratistak obren zaintza eta mantentze onak bermatze aldera, 3 puntu emango dira eskainitako berme-epea zabaltzen den urte bakoitzeko, edo zati proportzionala, epe hori urtebetetik beherakoa denean, agiri honetan jasotzen den urtebeteko epeaz gainera (hilabetetik beherako epeak kanpo geratuko dira). Beraz, gehienez ere 15 puntu lor daitezke.

18.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

1.- Eskaintzak sailkatzea eta esleipena proposatzea:

Eskaintzak balioztatuta, kontratazio-mahaiak aktarekin batera esleipen-proposamena bidaliko dio kontratazio-organoari, non eskaintzak handienetik

txikienera ordenatuta eta aurreko klausulan ezarritako esleipen-irizpideen arabera bakoitzak jasotako puntuazioa eta kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza agertuko diren.

2.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztea.

Kontratazio-mahaiak puntuazio onena lortu duen enpresari eskatuko dio, komunikazio elektronikoz, **behin betiko bermea** eratzeko, SPKLaren 75.2 artikuluan jasotako konpromisoa (kaudimena kanpoko bitartekoen bidez osatzea) eta 76.2 artikuluari jarraikiz kontratua gauzatzeko atxikiko edo eskainiko dituela hitzemandako bitartekoak dituenaren egiaztagiria aurkezteko. Horretarako, 7 egun balioduneko epea emango zaio komunikazioa bidaltzen denetik.

Horrez gain, Lizitatzaileen Erregistroan izena ematea derrigorrezkoa EZ denean edo datu edo dokumentu batzuk han jasota ez daudenean, kontratazio-mahaiak enpresari (edo ABEEn osatutako enpresei) eskatuko dio epe berdinean dokumentu hauek aurkezteko:

a) Lizitatzailearen nortasunaren egiaztagiriak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, Merkataritza Erregistroan inskribatutako osaerako edo aldaketako eskritura aurkeztuko da, haren nortasuna egiaztatu behar denean. Bestela, haren jarduera erregulatzeko arauak biltzen dituen eta, hala badagokio, Erregistro Ofizialean izena emanda dauden eraketa-agiria, estatutuak edo sorrerako egintza aurkeztu beharko ditu. Pertsona juridikoak kontratuen esleipendunak izango dira baldin eta prestazio horiek estatutu edo arau funtzionalen arabera haiei dagozkien helburuetan edo jarduketa-xede edo-eremuan jasotzen badira. Alderdi hori emandako dokumentazioan egiaztatu beharko da.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa denean, NAN agiria edo horren baliokidea aurkeztu beharko du.

b) Eskaintzaren sinatzaileak duen ordezkaritzaren egiaztagiria (beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean aritzen bada).

c) Zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekin betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria.

d) Eskaintzen aurkezpen-fasean adierazitakoaren arabera, enpresa-sailkapena edo haren kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa egiaztatzea, dokumentu hauen bidez:

Lizitatzaileek kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala daukatela egiaztatu beharko dute, ondoko zerrendan datozen baldintzetan eta bitartekoen edo agiriaren karatularen 6. atalean adierazten den kategoriako eta talde edo azpitaldeko sailkapenaren bidez.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa honela egiaztatu beharko dira:

* **Urteko negozio-bolumena kontratuak xede duen esparruan** 150.000 €-koa izango da gutxienez, eskuragai dauden azken 3 ekitaldietako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, enpresariaren jardueren osaerako edo hasierako daten eta eskaintzen aurkezpen-dataren arabera.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena onartutako eta Merkataritza Erregistroan gordetako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Erregistro horretan izena emanda ez badago, dagokion Erregistro Ofizialean gordetako agiriak aurkeztu beharko ditu. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako urteko kontuen eta inbentario-liburuen bidez egiaztatuko dute.

Kaudimen teknikoa honela egiaztatu beharko da:

* **Azkeneko bost urteetan gauzatutako obra nagusiak;** zenbatekoak, datak eta hartzaileak (publikoak ala pribatuak) barne. Hartzailea sektore publikoko erakundea denean, burututako zerbitzuak edo lanak **organo eskudunak** onetsitako edo igorritako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira; aldiz, hartzailea pribatua denean, hark igorritako ziurtagiria edo, horrelakorik ezean, enpresariaren adierazpena aurkeztu beharko da; hala badagokio, agintari eskudunak ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio kontratazio-organoari.

Zerbitzuen kontratatzaileak zerrendan jasotako obrak ondo gauzatu direla egiaztatzeko ziurtagiriak zuzenean jakinaraz diezazkioke kontratazio-organoari, hartzailea sektore publikoko erakundea denean.

* 500.000€-tik beherako balio estimatua duten kontratuetan, **kontratista enpresa berri bat denean**, hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna duenean, honela egiaztatuko du kaudimen teknikoa:

* **Lanak gauzatzeko erabiliko dituen makinen, materialen eta lantalde teknikoaren adierazpena**; bidezko egiaztagiriak erantsiko dira.

* **Aldi baterako enpresa-elkarteen** kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala zehazte aldera, enpresa bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira.

Enpresa-elkartean parte hartzen duten enpresarien kasuan, bakoitzak bere sailkapenean dituen ezaugarriak hartuko dira aintzat. Horretarako, araudiak zehaztutako eran balioetsiko dira, sailkatuak izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko. Dena dela, ezaugarri horiek metatzeko ezinbestekoa da enpresa guztiek obra-enpresen sailkapena izan dezatela. Horrez gain, Europar Batasuneko estatu-kideen eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko

akordioaren Estatu sinatzaileen arabera, espainiarrak ez diren enpresaburuek artikulu honen 4. artikuluan jasotakoa bete beharko dute.

Baldin eta kontratua aldi baterako enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, sorrerako eskritura publikoa eta elkartearen IFK aurkeztu beharko ditu, kontratua esleitutakoan. Edonola ere, enpresa-elkarteak kontratuaren iraupen berdina izango du.

Jatorrizko agiriak, kopia kauto edo konpultsatuak eta fotokopia arruntak aurkez daitezke. Alabaina, eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen lizitatzaileak kontratua esleitu aurretik dokumentu originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko ditu.

Udalak, ahal duen heinean, egoki deritzon jarduerak ofizioz eramango ditu aurrera, atal horietan eskatutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko. Gainerakoan, aipatutako dokumentazioa eskatuko du.

Eskakizuna aipatutako epean betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza baztertu duela iritziko zaio. Kasu horretan, puntuazio onena lortu duen hurrengo hautagaia esleitzea proposatuko da, eta 7 egun balioduneko epea emango zaio beharrezko dokumentazioa aurkezteko.

3.-. Esleipena

1.- Behin betiko bermea eratu eta aipatutako dokumentazioa eman ostean, kontratazio-organoak kontratua esleituko du, dokumentazioa jaso eta bost egun baliodunen buruan. Lehenago, ordea, kontu-hartzaileak gastua fiskalizatu beharko du.

b.- Esleipen zioduna izango da, bitarteko elektroniko bidez jakinaraziko zaie hautagaiei edo lizitatzaileei, eta, aldi berean, Errezilgo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.errezil.eus).

3.- Kontratazio-organoak lizitazioa hutsik utz dezake, hala badagokio, kontratazio-mahaiaren proposamenez, baldin eta agiri honetako irizpideen arabera eskaintza edo proposamen onargarririk ez badago.

d.- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da kontratua formalizatzeko epea, SPKLaren 153.3 artikuluari jarraikiz.

e.- Kontratua bi hileko epean esleituko da gehienez, proposamenak zabaldu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean kontratua esleitzen ez bada, lizitatzaileek beren eskaintza baztertu ahal izango dute.

19.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatu behar da, esleipenaren jakinarazpena jaso eta ZORTZI egun balioduneko epean gehienez ere. Agiri hori edozein erregistro publiko atzitzeko nahikoa titulu izango da. Aitzitik, kontratistak kontratua eskritura publikoan jasotzeko eska dezake, eta hark ordainduko ditu gastuak.

Kontratua formalizatzen den unean sartuko da indarrean.

Behin kontratua formalizatuta, Errezilgo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.errezil.eus).

20.- KONTRATUA EGIKARITZEA ETA ZEHAPENAK

1.- Obrak ezingo dira hasi kontratistak kontratua sinatu eta zuinketa egiaztatzen ez den bitartean.

2.- Kontratistak epean gauzatuko du kontratua eta, hala badagokio, epe partzialak bete beharko ditu. Kontratista berandutzen bada ere, Administrazioak ez dio kargu hartuko. Baldin eta kontratista, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua betetzeko epean berandutu bada, Administrazioak kontratua suntsitzea edo SPKLaren 192 eta 193 artikuluetan adierazitako zehapenak ezartzea erabaki dezake.

3.- Betetze akastuna: kontratuaren xede den prestazioa modu desegokian betetzen bada, kontratazio-organoak zehapenak ezar ditzake, kontratuaren esleipen-prezioaren % 1 eta % 10 artekoak, egindako arau-haustearen larritasunaren arabera.

Kontratazio-organoak zehapenak ezarri aurretik, dagokion espedientea izapidetuko da, eta kontratistari, edo, hala badagokio, abal-emaileari, entzunaldia emango zaio.

4.- Kontratua kontratistaren “gain eta galorde” gauzatuko da, SPKLaren 197. artikuluari jarraikiz.

21.- ENPRESA KONTRATISTEN GUTXIENEKO LAN-BALDINTZEI BURUZKO KLAUSULA SOZIALA

1.- Kontratistak lan, gizarte-segurantza eta laneko segurtasun- eta osasun-arloan legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak bete beharko ditu.

2.- Lizitatzaileek, esleipendunak izatekotan, kontratuaren xede den jarduera beteko duten langileei aplikatuko zaien talde-hitzarmena zehaztuko dute.

Halaber, kontratua esleitutakoan, langileen lan-baldintzei buruzko informazioa eman beharko dute.

3.- Kontratuaren iraunaldian, esleipendunak langileari talde-hitzarmenean jasotzen den soldata ordaindu beharko dio, dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ez da inolaz ere txikiagoa izango.

4.- Klausula honetako obligazioak kontratua betetzeko baldintza bereziak dira, eta horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraz dezake.

22.- BERME-EPEA

SPKLn jasotakoaren arabera, URTEBETEKO berme-epea dago, eta esleipendunak bere eskaintzan ezarritako epean zabalduko da.

23.- KONTRATUA SUNTSITZEA

SPKLaren 211. artikuluan eta, bereziki, 245. artikuluan obra-kontratuetarako jasotzen diren arrazoiek kontratua suntsiaraz dezakete.

Halaber, agiri honen 18. klausulan jasotako baldintza berezia betetzen ez bada, kontratua suntsituko da.

24.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan prezioak ez dira berrikusi behar.

25.- KONTRATUA ALDATZEA

1- Behin kontratua hobetuta, interes publikoko aldaketak baino ezingo dira egin, klausula honetan aurreikusitako kasuetan eta SPKLaren 205. eta 242. artikuluek xedatutako mugen barruan.

Kontratuan aldaketak sartu behar badira, kontratuaren zuzendaritzak dagokion proposamena idatziko du, eta bertan jasoko ditu aldaketa justifikatzeko, deskribatzeko eta balioesteko agiriak. Administrazioak aldaketa onartu aurretik, enpresa kontratistari entzunaldia emango dio. Aldaketa horiek kontratazio-

organoak onartu beharko ditu; aldez aurretik, ordea, SPKLaren 191. eta 207. artikuluetako prozedura izapidetu eta 153. artikuluan jasotakoaren arabera administrazio-dokumentua formalizatu beharko da, eta, hala badagokio, behin betiko bermea egokitu.

2.- SPKLaren 242. artikulua betez, ez dira aldaketatzat joko:

i. Gehiegizko neurketak; hau da, burututako obra-unitateak proiektuan aurreikusitako unitateen kopurutik desberdinak izatea, betiere guztizko gastua ez bada hasierako kontratuaren prezioaren % 10 baino gehiago igo. Nolanahi ere, obra-amaierako ziurtagirian geratuko dira jasota gehiegizko neurketak.

ii. Prezio berriak sartzea, Legean eta haren garapen-arauetan ezarritako prozedurek kontraesanez zehaztutakoak, betiere ez badute kontratuaren prezioa areagotzen, eta ez badie hasierako aurrekontua % 3an areagotzen duten obra-unitateei eragiten.

26. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

1.- 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, araututako **administrazioarekiko berraztertze-errekurtsoa** edo 29/1998 Legeak, uztailaren 13koak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, xedatutako **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** jar daiteke kontratazioarekin lotutako ebazpenen eta izapideen kontra, baldin eta ebazpen eta izapidezko egintza horiek auziaren edukiari zuzenean eragiten badiote, edo prozedura jarraitzea ezinezko egiten badute, edo defentsa-gabezia edo eskubide edo interes legitimoen kalte konponezina eragiten badute.

2.- Interesdunek bestelako izapideei kontra egin izana alega dezakete, prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean kontuan har dadin.

27.- KONTRATAZIO-PROZEDURAN ERABILI BEHARREKO KOMUNIKABIDEAK

SPKLaren 140.1.4. artikuluan eta 15. xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, kontratazio-prozeduran komunikazio eta jakinarazpenetarako bitarteko elektronikoak erabiliko dira (“gaitutako” helbide elektronikoa edo agerraldi elektronikoa), lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpenean hautatutako helbide elektronikoaren bitartez.

I. ERANSKINA

LIZITATZAILEA		***IFK - IFZ***
HELBIDEA	***HERRIA (PK)***	***TEL.***
***KONTRATUAREN XEDEA* / OBJETO DEL CONTRATO**		***ESPED. KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**

Behean sinatzen duenak, jarduteko gaitasun juridiko osoaren jabe dela, eta bere izenean edo lizitatzailearen izenean,

***BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU**:*

I.- Lizitatzaileak badauzkala kontratuaren xedea betetzeko beharrezkoak diren gaitasun juridikoa eta baliabideak eta ETE izateko baldintzak **[BAI] [EZ]** betetzen dituela.*(jarri X dagokion kasuan).*

II.- Sinatzaileak eskaintza aurkezten duen sozietatearen izenean jarduten duela eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko nahikoa dituela sozietate horrek, edo bere kasuan, dagokion sailkapena duela, eta jarduera egiteko behar besteko baimenak dituela.

III.- Ez dagoela Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluak aipatzen dituen kontratatzeko debeku egoeretatik bakar batean ere.

IV.- Zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekin obligazioak betetzen dituela, bai eta lan- eta gizarte-alorretan indarrean dauden xedapenak ere.

V.- Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatuta dagoela:

☐ **Bai,** SPKL legeko 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa betez.

☐ **Ez.**

VI.- Lizitatzailea inskribatuta **[BAI] [EZ]** dagoela Estatuko edo Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean, eta baiezko kasuan, ziurtagiria ofizioz eransteko baimena ematen duela. (*jarri X dagokion kasuan).*

VII.- Kontratuaren esleipenduna izatekotan, bere onespena ematen duela kontratuaren lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik ondorioztatutako datu guztiei gardentasun instituzionala emateko, harik eta prozesua amaitzen den arte.

VIII.- Aurrekoez gain, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako bestelako baldintza guztiak betetzen dituela. Horri lotuta, baldintza horiek egiaztatzeko konpromisoa hartzen du eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuz, esleipenduna izateko proposatzen badute.

IX.- Atzerriko enpresaren kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegietako jurisdikzioaren pean jartzen dela, eta bere kasuan, egoki lekiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko egiten diola.

DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA (*)

Esleipendun izateko proposatzen badute, Errezilgo Udalari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu *honetan ez da beharrezkoa izango dokumentuekin egiaztatzea.*

(*) Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimentzen.

BAI ❑ ***EZ*** ❑

HELBIDE ELEKTRONIKO ERABILGARRIA

Jakinarazpenak egiteko "erabilgarri" egongo den helbide elektronikoa, SPKLaren 15. xedapen gehigarrian jasotzen dena kontuan hartuz

EMAILA:

SINATZEKO LEGE-GAITASUNA

Dokumentu hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala aitortzen dut.

IZEN-ABIZENAK		***SINADURA /***
NAN	***DATA***	

Inprimaki honetako datu pertsonalak erasandakoaren onespenaz jasotzen dira; tratamendu automatizatua izango dute, eta Errezilgo Udaleko Informazio Sisteman sartuko dira. Datu horiek soilik udal kudeaketarako erabili ahal izango dira, eta beste administrazio publikoei edo beste norbaiti laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoa betetzen bada. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuaren bitartez (HAZ).

LIZITATZAILEA		**IFK - IFZ**
POSTA-HELBIDEA	***UDALERRIA (PK)***	***TEL.***
KONTRATUAREN XEDEA		**ESPEDIENTE-KODEA**

El abajo firmante en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, actuando en nombre propio o en representación del licitador,

DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:

I.- Que el licitador tiene capacidad jurídica y medios suficientes para cumplir con el objeto del contrato y **[SÍ] [NO]** cumple las condiciones de PYME *(señalar con una X lo que proceda)*

II.- Que el firmante ostenta la representación de la sociedad que presenta la oferta, que cuenta con la adecuada solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso, la clasificación correspondiente y que cuenta con las autorizaciones necesarias para ejercer la actividad.

III.- Que no está incurso en ninguno de los casos de prohibición para contratar señalados en el artículo 71 del la Ley de Contratos del Sector Público.

IV.- Que está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que cumple con las disposiciones vigentes en materia laboral y social.

V.- Que se integra la solvencia por medios externos:

- ☐ **Sí**, existiendo el compromiso a que se refiere el artículo 75.2 de la LCSP.
- ☐ **No.**

VI.- Que el licitador **[SÍ] [NO]** se encuentra inscrito en el Registro Oficial de Contratistas de Euskadi o del Estado y autoriza, en caso afirmativo, la incorporación de oficio del certificado*(señalar con una X lo que proceda*)

VII.- Que, en el caso de resultar adjudicatario del contrato, manifiesta su conformidad en dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución del contrato, hasta su finalización.

VIII.- Que, además de las anteriores, cumple con todas las demás condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración. A estos efectos, se compromete a acreditarlas aportando la documentación que le sea requerida en caso de ser propuesto como adjudicatario.

IX.- En caso de empresa extranjera, que se somete a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponderle.

AUTORIZACIÓN PARA CONSULTA DE DATOS (*)

En caso de ser propuesto como adjudicatario, AUTORIZA al Ayuntamiento de Errezil para consultar si el licitador está al corriente de sus obligaciones fiscales (ante Hacienda Foral) y frente a la Seguridad Social, así como a obtener la información necesaria a tal efecto, en cuyo caso no resultará necesario acreditarlo documentalmente.

(*) En caso de no marcar ninguna opción, se entenderá que NO se autoriza la consulta de datos.

SÍ❑ **NO ❑**

DIRECCIÓN DE CORREO ELECTRÓNICO HABILITADA

Dirección de correo electrónico "habilitada" para efectuar las notificaciones, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición adicional 15ª de la LCSP:

EMAIL:

FACULTAD LEGAL PARA LA FIRMA

Declaro que estoy facultado legalmente para firmar este documento,

NOMBRE Y APELLIDOS		***SINADURA* / FIRMA**
D.N.I.	**FECHA**	

Los Datos Personales contenidos en el presente formulario son recogidos bajo el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Errezil. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través del Servicio de Atención Ciudadana (SAC).

II. ERANSKINA: proposamen-eredua

ANEXO II: Modelo de proposición

"..... ..... jaunak/andreak, NAN: ....., hiria:....., helbidea: ...., telefono zk..... (fax zk.:.....; posta elektronikoa: .....), jarduteko gaitasun juridiko osoaren jabe dela, eta ezaguturik ERREZILGO PILOTALEKUKO HARMAILAK ERAIKITZEKO lanen kontratazioa arautuko duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NAN ....., hiria: ....., helbidea:..... .., eta abar), **JAKINARAZTEN DU:**

I.- Baldintza Administratiboen Agiria eta espedientean dauden gainerako dokumentuak ezagutzen dituela, eta osorik onartzen dituela.

II.- Esleipendun suertatuz gero, aipatutako lanak egingo dituela betiere onartutako agirian zehazten diren baldintzak betez, eta espedientean zehaztutako gainerako eskakizun guztiak ere beteko dituela.

III.- Lan, zerga eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeak edo araudiek xedatzen dutena beteko duela.

IV.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan-baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako hitzarmen

"D./Dña. ....., con DNI nº ....., vecino/a de ....., domicilio en ....., teléfono nº ..... (en su caso, fax nº .....; correo electrónico: .....), en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, actuando en nombre propio (o en representación de ....., C.I.F/D.N.I. nº....., con domicilio en....., calle -o plaza, ..., etc...) enterado/a del Pliego y demás condiciones facultativas que han de regir la contratación de las obras de DE UN GRADERÍO NUEVO PARA EL FRONTÓN DE ERREZIL, **HACE CONSTAR:**

I.- Que conoce el Pliego de Clausulas Administrativas Particulares y demás documentos obrantes en el expediente, que expresamente asume y acata en su totalidad.

II.- Que, en caso de resultar adjudicatario, realizará los citados trabajos con sujección en todo caso a los requisitos y condiciones dispuestos en el Pliego aprobado, así como al resto de las condiciones facultativas fijadas en el expediente.

III.- Que se obliga al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral, tributaria y de Seguridad Social.

IV.- Que manifiesta expresamente haber tenido en cuenta en la elaboración de la oferta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo,

kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela: ..... (Kodea:.....).

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan-baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio-organoari ematera behartzen dela.

V.- Esandako guztiaren arabera, zehaztutako obra horiek egitera konprometitzen da.....euroko osoko prezioan, ondorengo banakapenarekin:

- Prezioa: ……..…… €
- BEZ aplikagarria (%.....a): …… €

Halaber, obraren egikaritze-epea hau izango da:

Eta bermea luzatzeko epea hau izango da:…..

Lekua, eguna eta sinadura. LIZITATZAILEA"

condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales, en particular los convenios colectivos de aquellos sectores de actividad que resulten de aplicación en Gipuzkoa, y de protección del medio ambiente.

A estos efectos, señala que el convenio colectivo de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en caso de resultar adjudicataria, es el siguiente: …… (Código….)

Igualmente se obliga a facilitar al órgano de contratación cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

V.- Que se compromete, conforme a todo lo dicho, a ejecutar las obras referenciadas en la cantidad total de ..... euros, desglosado de la siguiente manera:

- Precio: ..... €
- IVA aplicable (.....%): ..... €

Asimismo, el plazo de ejecución será de:

Y el plazo de ampliación de garantía será de:

Lugar, fecha y firma. EL LICITADOR."

"..... ..... jaunak/andreak, NAN: ....., hiria:....., helbidea: ...., telefono zk..... (fax zk.:.....; posta elektronikoa: .....), jarduteko gaitasun juridiko osoaren jabe dela, eta ezaguturik ERREZILGO PILOTALEKUKO HARMAILAK ERAIKITZEKO lanen kontratazioa arautuko

"D./Dña. ....., con DNI nº ....., vecino/a de ....., domicilio en ....., teléfono nº ..... (en su caso, fax nº .....; correo electrónico: .....), en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, actuando en

duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NAN ....., hiria: ....., helbidea:..... .., eta abar), **JAKINARAZTEN DU:**

I.- Baldintza Administratiboen Agiria eta espedientean dauden gainerako dokumentuak ezagutzen dituela, eta osorik onartzen dituela.

II.- Esleipendun suertatuz gero, aipatutako lanak egingo dituela betiere onartutako agirian zehazten diren baldintzak betez, eta espedientean zehaztutako gainerako eskakizun guztiak ere beteko dituela.

III.- Lan, zerga eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeak edo araudiek xedatzen dutena beteko duela.

IV.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan-baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako hitzarmen kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela: ..... (Kodea:.....).

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan-baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio-organoari ematera behartzen dela.

nombre propio (o en representación de ....., C.I.F/D.N.I. nº....., con domicilio en....., calle -o plaza, ..., etc...) enterado/a del Pliego y demás condiciones facultativas que han de regir la contratación de las obras de ejecución DE UN GRADERÍO NUEVO PARA EL FRONTÓN DE ERREZIL, **HACE CONSTAR:**

I.- Que conoce el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentos obrantes en el expediente, que expresamente asume y acata en su totalidad.

II.- Que, en caso de resultar adjudicatario, realizará los citados trabajos con sujeción en todo caso a los requisitos y condiciones dispuestos en el Pliego aprobado, así como al resto de las condiciones facultativas fijadas en el expediente.

III.- Que se obliga al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral, tributaria y de Seguridad Social.

IV.- Que manifiesta expresamente haber tenido en cuenta en la elaboración de la oferta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales, en particular los convenios colectivos de aquellos sectores de actividad que resulten de aplicación en Gipuzkoa, y de protección del medio ambiente.

A estos efectos, señala que el convenio colectivo de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en caso de resultar adjudicataria, es el siguiente: ..... (Código…)

Igualmente se obliga a facilitar al órgano de contratación cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez

V.- Esandako guztiaren arabera, zehaztutako obra horiek egitera konprometitzen da.....euroko osoko prezioan, ondorengo banakapenarekin:

- Prezioa: ……..…… €
- BEZ aplikagarria (%.....a): …….…… €

Halaber, obraren egikaritze-epea hau izango da:

Eta bermea luzatzeko epea hau izango da:…..

Lekua, eguna eta sinadura. LIZITATZAILEA"

adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

V.- Que se compromete, conforme a todo lo dicho, a ejecutar las obras referenciadas en la cantidad total de ..... euros, desglosado de la siguiente manera:

- Precio: ..... €
- IVA aplicable (…….%): ..... €

Asimismo, el plazo de ejecución será de:

Y el plazo de ampliación de garantía será de:

Lugar, fecha y firma. EL LICITADOR."